[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
542. zkia.
XIII. urtea
2005eko irailaren 16a




## Mausitxako gazta

# 6.000 euro gazta erdiagatik!

[ **BERBETAN** ] ION GARATE • [ **KIROLA** ] ERNESTO VILLARINO

# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**
**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



# "Gomendatzen dizut..."
## saria

Zure oporrak gomendatu nahi dizkiguzu?
Kontaiguzu zein den zure herri, hondartza, mendi, ostatu edo dena delako kuttuna eta sari bat irabaziko duzu!

Bidali mezu labur bat edo argazki bat testuarekin *elg.gzerbitzua@terra.es* helbidera edo utzi zure gomendioa Gazte Bulegoan.
Partehartzaile guztien artean bi sari zozketatuko ditugu!
- 17 urtera artekoentzat: CD portatila MP3 sarrerarekin
- 18 urtetik gorakoentzat: Asteburua 2 pertsonentzat landetxe batean.

GOMENDIOAK AURKEZTEKO EPEA: irailak 30.
ZOZKETA: urriak 7.

gazte informazioa
Elgoibarko Gazte Bulegoa
Kultur Etxea, Nafarroa plaza
Tel: 943 74 14 61
*elg.gaztebulegoa@terra.es*



# ZOZOAK BELEARI...



## Alaitz Vives

Zenbat amets udako oporrei begira! Aukeratutako herrialdeak, hiriak zer nolako usaina, zer nolako kolorea izango ote duen imajinatzen. Nolakoak ote dira egunsentiak, nolakoak, neska eta mutil-koskorren irrifarreak. Mapa baten gainean izen bat baino ez den horrek zer nolako barrua ote du. Ni oraindik ere bidaiaren aurreko gauean lo egin ezinda egoten den horietakoa naiz. Txikia nintzenean bezalaxe. Amak gosaria prest zuela esnatzen gintuen eta dardarka jaikitzen nintzela gogoratzen dut. Behin eguna iritsita, bidaia martxan jarrita, imajinatutakoak, amestutakoak bizitza propioa hartzen du eta hori ez dago geratzerik. Mapan zenbakidun errepide gorri bat baino ez zena, bailara zoragarri batean zehar kilometroz kilometro bidea egin eta inoiz ahaztuko ez dugun bidea bihurtzen da. Erreka ondoan pasatako ilunabarra, mendi tontorrean arnastutako haizea, egarriak akabatuta edandako garagardoa, lagunarteko farreak, denak gure bizitzako bidaiaren motxilan eramango ditugu. Betirako. Iraila ostera, intentzioen hila da. Ikasturtea hastean estutxe berria estreinatu nahi izaten nuen era berean kurtso berria begi berriekin begiratuko dut. Gaur paper gainean zozoak beleari begiratzen dionean, oraindik ere nire bidaiak bere bidea egiten jarraituko du.

> **«Oraindik ere nire bidaiak bere bidea egiten jarraituko du»**
>
> ALAITZ

> **«Igarri gabe pasa zait hainbeste itxarondako uda»**
>
> UNAI

## Unai Villena

Baita nireak ere, Alaitz. Ia-ia igarri gabe pasa zait hainbeste itxarondako uda eta dagoeneko kurtso berria estreinatzen ari naiz ni ere. Estutxe berri gabe, baina bizipenez betetako motxila handi batekin, hori bai.

Azkar batean pasa dira iratzargailua itzalita egon diren egunak, atsedena, hondartza, ilunabarrak, mendia, garagardoa, jaiak, neska-mutikoen irribarreak, udako amodioak, udako beroa eta udako beroaldiak...

Hainbeste gauza pasa dira eta azkeneko zozoak idatzi nizun eguna atzo izan zela iruditzen zait; pentsa zeinen azkar pasa zaidan denbora.

Ni ere, zu bezala bidaiaren aurreko egunean lo egin ezinda egoten den horietakoa naiz. Askotan, bidaia eta ondorengo gauetan ere ezin izaten dut ondo loak hartu, atzean lagatakoan pentsatzen. Baina geroz eta gutxiago gertatzen zait hori; mozkorraldien ostekoak ez bezala, atzean lagatakoak utzitako biharamunak geroz eta errazago pasatzen ditut.

Dagoeneko aurtengo udako oporrak ahaztu zaizkit eta datorren urtekoak ahalik eta azkarren iristeko esperantza gelditzen zait. Eta uda eta uda arteko denbora, uda balitz bezala bizitzeko gogoa.

Zenbat amets bizitzari begira!

> “EZIN AHAL DUENAK NAHI DUENA, NAHI BEZA AHAL DUENA”
>
> Jose Ortega y Gasset

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Nekazaritza Ekologikoa

BARREN aldizkariko azken aleko ZORTZIKO TXIKIAN sailean Argine Rubiori elkarrizketatxoa egiten zaio eta bertan esandakoak irakurri ostean, ENBA nekazal sindikatutik honako hau puntualizatu nahi genuke:

Nekazaritza ekolojikoa transgenikoa erabiltzen ez duen nekazal ekoizpen mota bakarra bezala azaltzea ez da egia eta berak jakin beharko luke, ekolojikoaz at ere, ekoizpen mota ugari daudela transgenikoekin zerikusirik ez dutenak.

Bestalde, elkarrizketatuak dio Labeldun barazkiak garestiagoak direla eta hori, barazki edota edozein produkturen prezioa, merkatuaren egoera eta uztaren kalitatearen arabera doala baina, orkorrean, ez dago esaterik Labeldun barazkiak ekoljikoak baino garestiagoak direnik.

Gure ustean, norberaren etxea goraipatzeko eta sustatzeko ez da beharrezkoa aldamenekoaren etxea zikintzea eta sarri askotan, horrelako jarrerak ikusi ohi ditugu zenbaitzuengan. Nekazal sektorea oso txikia da, euskal kontsumitzaileak ugari, beraz, ez gaitezen elkarren arteko sestretan jardun.

**ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna)**

## Fumigazioa

Joan zen hiru eguneko asteburuan pinuetako prozesionariaren aurkako fumigazioa egin zuten abioneta batekin. Egunkarian irakurri genuen irailean Deba ingurua fumigatuko zutela, baina ez zuten eguna, lekua eta erabiliko zuten sustantzia zehazten. Badakit nekazaritza biologikoaren aldeko apustua egiten dugunok gutxiengoa garela: barazkiak eta fruituak ahal dugun modurik garbienean landatzen saiatzen gara, ongarritzeko gairik eta pestizidarik erabili gabe. Etxeko barazki eta fruituak jaten ditugu, beste baserritar askok bezala, negurako mermelada eta kontserbak egiten ditugu, eztia jasotzen dugu, eta zelaiak zaldiekin mantentzen ditugu. Gipuzkoako patroiaren egunean, irailaren 9an, jai eguna, baserrian bizi garenoi "dutxa hotz" bat erori zitzaigun gainera: fumigazio bikoitza egin zuten, bi egunetan. Gure ortuak, fruitu arbolak, ganaduaren jatekoa eta ura pestizidaz beteta aurkitu genituen.

Prozesionariaren gaitza monokultiboaren ondorioa denez, baso politika hostotsua proposatzen dugu. Bestalde, fumigazioa pestizida suabeagoekin egin dezatela, eta abionetaz egin behar bada, pinudi konkretuetan egin dezatela, eta batez ere, erabiltzen duten pestizidari buruzko informazioa eman dezatela: toxikotasuna, degradatzeko behar duen denbora, eta fumigazioa egingo duten eguna zehaztu dezatela.

Natura errespetatzen erakusten digute, baina beraiek errespetatzen al dute? Edo interes ekonomikoak gure osasun eta naturaren gainetik daude?

**L.R. X0704990-Vq**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

**Laguntzailea** Elgoibarko Udala **Kazetariak** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **Publizitatea** Eider iriondo **Maketatzailea** Jaione Unanue **Kolaboratzaileak** Uxue Alberdi, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **Esaera zaharra** Gotzon Garateren liburutik **Inprimategia** Gertu Koop. E. **Tirada** 4.360 ale **Lege gordailua** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

# KEXAK

• Herritar batek esan digunez eskailera mekanikoak edonork gelditu ditzake: "Eskailera mekanikoak oso erraz geratu daitezke, bertan baitaukate horretarako botoia. Erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko botoi hau edukitzea beharrezkoa da, baina gutxieneko denbora bat pasatu ostean berriz martxan jartzeko sistemaren bat eduki beharko lukete. Askotan umeak ibiltzen dira eskaileretan jolasean, botoia sakatzen dute eta eskailerak gelditu egiten dira. Gero hauek martxan jarri arte denbora mordoa pasatzen da, eta badirudi beti eskailerak izorratuta daudela".





• Santa Klara auzoko bizilagun batek esan digunez, beraien etxe aurreko parkean lurra apurtuta dago, eta harri guztiak beraiek jaso behar izan dituzte: "Gure etxe aurrean dagoen parkea oinezkoentzat den arren, duela gutxira arte jendeak autoa bertan aparkatzen zuen. Lur guztia puskatuta zegoen, eta Udalak konpondu egin zuen. Zementuaren antzerako material bat bota zuten baldosen gainetik, baina denbora gutxira dena altxatu zen berriro. Behin eta berriz joan ginen Udaletxera, baina ez ziguten kasurik egin, eta azkenean bizilagunen artean jaso behar izan genituen puskatutako harri guztiak".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12








## URRUZUNOREN *luma*

### *Kalko okerrak*

Euskaldun eta erdaldun ororentzat baliagarri eta tresna bikain gerta daitekeen eskuliburu baten gomendioa egitera nator gaur. *Kalko okerrak.* Izenburuak erakarri nau, aurkezpenak ere bai. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Ikasmaterialen Aholku Batzordeak paratu du lana, eta sarrerakoan helburu ageri denez "eguneko euskaldun ikasi arruntaren akats eta zalantza ohikoenak argitzen laguntzen du saiakera honek". Euskaltzaindiaren oniritzia jaso du eta argitaratu da. Zuzentzaile aritzen naizen aldetik esan behar dut, sarri askotan gramatikatik harago doala euskara *ona* egitea, *zuzena* ez baita beti *egokia* izaten. Horren argigarri izan liteke *Euskararen kalitatea, zertaz ari garen, zergatik eta zertarako.* Baina natorren harira. *Kalko okerrak* lanean, "Hizkuntza batek beste baten eredutik berera egokitzen duen egitura" okerraren ordezko jatorra aurkituko du irakurleak. Erdal hizkuntzek eguneroko euskarari ekarpen askotan traketsa nola egiten dioten azaltzera dator (*Nereari jo dio*, esaterako), eta ordainetan euskal esapide jatorrak proposatzera. Gustu baduzu,

***Ainhoa Lendinez***



## BAI ESAN?

**ALFONSO GONZALEZ**

ESKUALDEKO NEKAZAL BULEGOKO ARDURADUNA

*Azken hilabeteotako euri faltak eragin handia izan du Elgoibarko eta orokorrean, Euskal Herri guztiko nekazaritzan eta abeltzaintzan. Guzti honetaz berba egiteko Eskualdeko Nekazal Bulegoko arduradunarekin egon gara, eta berak eman dizkizgu xehetasun guztiak.*

• **Zein eragin izan du udako lehorteak?** Aurtengoa ez da hain gogorra izan, azken hiru urteak daramatzagu lehorteekin, eta iazkoa gogorragoa izan zen. Deban esate baterako, zenbait baserritarrek ez zeukaten animaliei emateko urik eta zisternak ekarri behar izan zituzten. Aurten ez da honelakorik gertatu, baina Mendaroko baserri batzuk urik gabe gelditu dira eta Ur Zerbitzuak eraman behar izan die. Elgoibarko baserritarrak ez dira gehiegi kexatu.

• **Zein izan da arazo larriena?** Hemengo baserriek ureztatze sisteman egiten dute kale. Beti uste dugu hemen euri asko egiten duela eta ez dela urik faltako, baina udako bizpairu hilabetetan euri gutxi egiten du. Ureztatze sistema onak edukitzea garrantzitsua da.

• **Orain, nola dago egoera?** Euskal Herriko urtegiak nahiko beteta daude, eta badirudi hasi dela berriz ere euria egiten. Txarrena pasatu da dagoeneko.

## komikia

*Hil da gero...* Ron Pampero




Kokoe 029

# [AKORDATZEN NAIZ]



## JAVIER ARRIOLA
1940an jaioa

## «Lehenengo soldata eta laneko ibilbidia»

Altzolan hasi nitzan lanian. Altzolan tallar txiki bat zaguan; bat ez, bi. Ni hasi nitzan tallar haundixan, eta beste lagun bat zaguan bakarrik tallarrian, eta gero ni bigarrena. Gero aillegau giñan egotera bederatzi lagun.

Mekanikako tallarra zan, makiña erreminttakua. Hala hasi nitzan lanian hamalau urterekin. Estudixatzeko ez giñan kapaz izango, eta hara.

Lehenengo soldatia hasi nitzan kobratzen zazpi pezeta egunian. Astekua pagatzen ziguen. Lan-orduak zortziretatik hamabixetara eta ordubata t'erdixetatikan bost t'erdixetara. Zapatuetan ere bost t'erdixak arte lanian. Enkargau egin nindduen hemezortzi urtekin. Han izan nitzan etxeko bezela: horregatik izango zan soldatia ere hain bajua! Gaiñera, amari entregau bihar sobria, eta gero amak ematen zaban pagia.



Gero, tiragomia edo baliñezko eskupetia agentziau gendunian, jaixa harekin pasau, eta aurrera.

Altzolako lantokixan 18 urtera arte egon nitzan. 18 urterekin Geminisera etorri nitzan. Bi urte egin nittuan Geminisen. Hori eurak ugazabak egin zaben tratua izan zan. Hango lanak dominauta nakazen. 20 urterekin atzera Altzolara bueltau nitzan. 34 urtera arte egon nitzan han, eta 34 urterekin berritz, Sigma aldian zaguan Blode tallarrera etorri nitzan. Nere andrian anaixa zaguan han gerente 68 urtian, eta horra etorri nitzan ya enkargau. Hor egon nitzan lau urtian, itxi zan arte. Gero Acme-ra jun nitzan eta Acme itxi zan berriz. Handik Anayeta-ra jun nintzan. Hamar urte egin nittun, eta oin febreruan jubilau naiz.

# [GURE BERBAK]

## Erderakadak (2)

Pasa dan astian erderakadekin hasi giñan. Joeratxua daguala esan gendun erdal berbak erabiltzeko, baiña esan bihar da hizkuntzaren atalik azalekuenian gertatzen dirala batiz bat erderakada hauek: hiztegixan. Ez da, hortaz, hain kezkagarrixa izaten, hizkuntza kontuetan oso garbizalia ez danarentzat behintzat. Zenbakixekin, adibidez, adiñeko jendiak oso ugari erabiltzen dittu erderakadak: urtiekin, adiñarekin, orduekin, eta abarrekin. Hiztegi maillako beste adibide batzuk ere sartu dittut.

- *Jaixo nitzan "mil novecientos veinte. O sea, setenta y ocho años" eginda nagok, jun dan urtian oktubrian.*
- *Gero tallar haura, ba itxi egin zan "el año setenta y uno".*
- *Da geratu nitzan gaizki. Gaizki nenguan, han "ochenta y cuatruan". Da jefe-pertsonalak esan zidan, ba berak ipiñiko nindduala ondo. Da gero juan giñan papeleua egittera, eta eman zien "invalidez absoluta".*
- *Ezkondu gu egin giñan, ba "el año cuarenta y ocho", ezkondu giñan.*
- *Da handik aurrerakua, berrogeta sei urte total tallarrian, egin nittuan. Mordo bat, eh? "Cuarentaiseis años", tallarrian egin nittuan.*
- *Gero, eskolatikan, ba direto jun giñan.*
- *Da, efetibamente, haraxe juan zian, eta al zabanak al zaban lekura juan bihar.*

*Jesus Mari Makazaga*

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89


Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

# JESUS ANSOLA eta ROSA M. SALEGI

MAUSITXA BASERRIKO GAZTAGILEAK

# «Ordiziako Gazta Lehiaketa irabaztea, arraunean Kontxako Bandera irabaztea modukoa da»

*Ordiziako Artzain Gazta Txapelketaren 31. edizioa ospatu zen irailaren 7an. Bertan, Mausitxa baserriko Jesus Ansolaren eta Rosa Mari Salegiren gazta aukeratu zuten onena eta gaztaren erdia enkantean jarri ostean, 6.000 euro ordaindu zituen Olaberriako Hotel Castillok. Ez da Mausitxako gaztak jaso duen lehen saria izan, baina bai orain arteko garrantzitsuena.*

**Gazta erdiaren truke 6000 euro. Gutxitan egingo zenuten negozio hoberik...**

Guretzat izango balitz bai! Lehen zahar etxe bati ematen zioten, eta orain antolakuntzarentzat izaten da. Bazkarirako txartel bat jaso dugu trukean eta kitto!

**Gazta batek horrenbeste balio al dezake?**

Hori guregandik aparte geratzen da.. Marketing operazio moduan ulertu behar da. Urte baten, esaterako, eskulangintza biltegi batek New Yorken erakusgai jartzeko erosi zuen. Erosleek jakingo dute errentagarri ateratzen zaien edo ez.

**Olaberriako Hotel Castillok erosi zuen. Ba al dakizue zertarako erabiliko duten?**

Erakusgai jarriko dutela uste dugu. Degustazio bat egiteko gutxiegi da. Iaz bi erosleren arteko lehia biziaren ostean, 12.000 euro ordaintzera iritsi ziren enkantean. Aurten gure gazta erosi duena iaz gaztarik gabe geratu zena da.

**Zer esanahi dauka gaztagile edo artzain batentzat Ordiziako Gazta Txapelketa irabazteak?**

Arraun munduan Kontxako Bandera irabaztea modukoa litzateke. Ordiziakoa da gazta lehiaketa garrantzitsuena, diferentziaz. Ordiziak ematen duen 'boom' informatibo hori ez dute besteek.

**Zenbat aldiz parte hartu duzue Ordizian?**

18 bat urte izango dira! Elgoibarren Gabon Zaharretako lehiaketa hasi zenean ekin genion lehiaketetan parte hartzeari. Ez genekien zer gazta motarekin lehiatzera joan behar genuen ere. Guretzat gazta oso ona zena, baliteke epaimahaiak ez puntuatzea. Zer gazta baloratzen dituzten ikasiz joan gara.

**Zer jan dute aurten Mausitxako ardiek hainbeste sari irabazteko?**

Aurreko urteetan bezala. Beti saiatzen gara ahal den elikadura garbiena eta sanoena ematen. Jaten dutenaren zaporea ekartzen du esneak eta gazta ona






*Aurtengo sarien uzta oparoa izan da. Momentuz 8 gazta lehiaketa irabazi dituzte (Zoro Feriakoa Deban; Intxaurrondoko Aste Gastronomikoa, Bilbaoko Hiria; Azpeitikoa; Jatorrizko Deitura Lehiaketa Plentzian; Gipuzkoako Gazta Txapelketa Legazpin, Ordiziako Artzai Gazta Txapelketa eta Bergarakoa) eta oraindik ez da urtea amaitu!*

## DATUAK




- Gazta kopurua urteko: **11.000-13.000 kilo artean.**
- Gazta bat egiteko beharrezko esne litroak: **Sei litro. Hortaz, urtean 400.000 litro esne erabiltzen ditugu.**
- Ardi kopurua: **650 ardi.**

egingo bada esneak ere ona izan behar. Esne onarekin gazta txarra egin daiteke, baina esne txarrarekin gazta onik ez.

**Ardoekin bezala, uzta ona izan al da aurten Mausitxan?**

Joan deneko urte mordoxkan nahiko antzeko gazta egiten dugu. Aldaketa urrunagotik dator. Gaztagintza asko aldatu zen altzairu herdoilgaitz, esnea hozteko ontziak eta prozesu guztia kontrolpean izateko tresneria aldatu genuenean. Artisau-gaztak bere horretan jarraitzen du, baina kontrolatuago eta garbitasun aldetik askoz hobeto. Kalitateak nabarmen egin du hobera, baina ez gurean bakarrik.

**Gaztaren zaporeak ez al dira uniformatu?**

Gazta egiteko bi modu nagusitzen dira. Batetik gatzagi naturalarekin, lehengo usadio zaharrean egindakoak, eta bestetik gatzagi artifizialarekin egindakoak. Guk gatzagi naturalarekin jarraitzen dugu, piska bat fuerteagoak ateratzen dira eta zaporeak pertsonalitate gehiago du. Duela urte batzuk artzainok astero batu eta gure gazten "kata" edo dastaketak egiten hasi ginen. Helburua; batak bestearen produktua ezagututzea. Jatorrizko deituraren teknikariak diren katatzaile profesionalak ere izaten dira bertan. Lehiaketetako epaimahaiak ere beraiek osatzen dituzte.

**Zer esaten dizuete gainontzeko artzain eta gaztagileek?**

Gure gazta probatu nahi dutela, leku guztietan zergatik irabazten dugun jakiteko. Beste munduko diferentziarik ez dagoela uste dut. Parametro batzuen barruan ondo sartzen diren gazta sorta batzuk tokatu dira aurten, baina horrek ez du esan nahi datorren urtean ere horrela izango denik.

> **«Esne onarekin gazta txarra egin daiteke, baina txarrarekin gazta onik ez»**

**Eta hemendik aurrera zer? Garestiago ordaindu beharko al dugu Ordiziako gazta irabazlea?**

Aurten lehengo prezioa mantenduko dugu. Kamaran geratzen zaizkigun gaztei prezioa igota ere, arazorik gabe salduko genituzke, baina datorren urtean zer? hainbeste urtean lan honetan aritu ostean, klientela egina daukagu eta horiek ez zaizkigu kexatu saririk irabazi ez dugunean. Orain eurek ere gure esker ona behar dute. Gure aurrekoek esaten zuten moduan, hankak lurrean direla ibili behar da.

**Mausitxako gazta modan dago.**

Orain bakarrik ez, lehenagotik ere bai. Ez daukagu kexatzeko motiborik. Elgoibarren eta inguruetan asko apreziatzen da. Artisau eran egindako produktu baten produkzio handienetakoa daukagu, eta urtero dena saltzen dugu.

**Artzainen 7. generazioa ei zara Jesus...**

Ez dugu Udaletxeko erregistroetan begiratu, baina aitxitxan esanei kaso eginez gero, halaxe da. Argi dago, ardiak eta gazta betidanik egon direla gurean. Akordatzen naiz, mutikoskorretan, 100 bat ardi egoten ziren gurean eta gazta astoan eramanda saltzen zen Elgoibarren.

**Etxeko gazteek honetan jarraitzeko asmorik?**

Semea gurekin dago, momentuz. Prozesuan lan egiteko 3 gara fijoak; senar-emazteak eta semea. Alabak denboraldi batzutan laguntzen digu eta besteren bat agertzen bada ere lanean jartzen dugu.

## [ PROTAGONISTAK ]



### UxueAlberdi

Uxue Alberdik Beasaingo Udalak antolatutako Igartza Saria irabazi du. Uxuek 6000 euro jasoko ditu urtebeteko epean liburu bat idazteko. Uxuek berak azaldu digunez, Suediako herri batean kokatutako ipuin bilduma bat idazteko asmoa dauka. Bera Suedian egon den bitartean ipuin asko idatzi ditu, eta proiektu hori aurkeztu zuen lehiaketara. Eginiko lanarekin oso gustura gelditu zen arren, ez zuen irabazterik espero. Aurten lan dezente izango duela kontatu digu: Kazetaritzako 4. maila egin, liburua idatzi eta akaso ikerketa proiektu bati ere ekingo dio.

## [ NOTIZIA ]

# San Bartolome Parrokiako sitsa gasarekin akabatuko dute

Izurriteen kontrako lanak egiten dituen ISS enpresako langileak aste osoan zehar aritu dira San Bartolome Parrokiako sitsaren kontra lanean. Sitsa egurrean hazten de intsektu txiki bat da, eta bere aurkako neurririk hartzen ez bada egurrezko estruktura daukan etxebizitza osoa deusezteko ahalmena dauka.

ISS enpresak bromuro gasa erabili du sitsari behin betiko amaiera emateko. Gas oso toxikoa eta arriskutsua da.

Sitsaren aurkako tratamentua altare nagusiaren alboetan dauden bi balkoietan eta erretaulan erabiliko da. Elementu hauek plastiko beltz handi batekin estali dira gasak bere lana hobeto egin dezan.



**Larunbaterako amaituta**

Lan hauek joan zen astelehenean, irailaren 12an hasi ziren, eta biharko amaitzea aurreikusten da. Bihar beraz, gauzak ondo badoaz Parrokian eskainiko dira mezak, eta bestela Madalako elizan.

## [ ZENBAKIA ]

# 67.000

Elgoibarko Udalak 67.000 euro erabiltzen ditu urtero berari dagozkion eraikuntza eta lokalak garbitzeko. Besteak beste, Foruen Plazako eraikinak, Merkatu Plaza, herrian zehar dituen hainbat lokal, eskailera mekanikoak eta komun publikoak garbitzeko erabiltzen dute diru hau.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Elgoibartarrek sekulako sorpresa hartu zuten joan zen ostegunean: azoka bat bera ere ez edukitzetik, bi azokarekin topo egin zuten, bata Plaza Txikian, eta bestea San Bartolome Parrokiako arkupeetan. Badirudi Udalak ostegunetako azoka Trenbide kalean kokatzearen proposamena alde batera utzi duela, eta Sigmako aparkalekua egokitu bitartean Plaza Txikian jarriko da ostegunetako merkadilloa. Herritarrek gustura hartu dute berria, eta behin betiko arazo hau konpontzea nahi dute.

# Gurasoei zuzendutako euskara ikastaroak antolatu ditu Udalak



Azken urteotan egin duen bezala, aurten ere Udaleko Euskara Batzordeak gurasoei zuzendutako euskarako ikastaro bereziak antolatu ditu, herriko euskaltegiekin eta ikastetxeekin elkarlanean.

### Hiru maila

Euskara ikastaro hauek hiru maila desberdinetan banatuko dira: Euskalduntzen (euskaraz oraindik gutxi dakitenentzat), Hobeto eta errazago hitz egiten ikasteko ikastaroa (euskaraz hitz egiterakoan konfiantza gutxi dutenentzat) eta azkenik, Hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko ikastaroa (umeei etxeko lanak euskaraz egiten lagundu ahal izateko).

Udalaren dirulaguntzari esker 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoek matrikularen erdia ordainduko dute, eta kurtsoan zehar asistentzia eta aprobetxamendu ona erakusten badute, beka jasotzeko aukera ere izango dute.

Ikastaro hauetan parte hartzeko interesa dutenek Elgoibarko AEK, Udal Euskaltegian edo goizez Kultur Etxean dagoen Euskara Sailean (943 74 43 66) jaso dezakete informazio gehiago.

Izena emateko epea irailaren 23an bukatuko da.

## Irailak 22, kotxerik gabeko eguna



Elgoibarko Udalak Debegesaren laguntzaz antolatuta, Mugikortasunaren Astea ospatuko da datorren astean. Irailaren 22a, osteguna, kotxerik gabeko eguna izango da. Goiz guztian zehar gai honekiko sentsibilizazio kanpaina egingo dute Arriagako industrigunean. Egun berean, arratsaldeko 18:30etatik 19:30etara txirrinduak konpontzeko tailerra izango da Foruen Plazan.

Asteari amaiera emateko bizikleta irteera izango da irailaren 25ean. Goizeko 9:30ean aterako dira Mallabitik eta Elgoibarrera 10:20ak aldera iritsiko dira.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### San Antolin jaietako zozketa

San Antolin auzoko jaietan opariz beteriko karretila baten zozketa egin zen eta Leire Egaña izan da irabazlea. Zorionak!



### Haizea Emakume Taldearen ikastaroak

Haizea Emakume taldeak hainbat ikastaro antolatu ditu ikasturte berrirako: oinarrizko ingeles ikastaroa eta sevillana eta dantza latino ikastaroa (informazio gehiago Pitxintxun; 943 74 32 06) eta yoga (informazio gehiago Kiroldegian; 943 74 44 15). Bestalde bideo forumak ere antolatuko dituzte.

### Eskuz Elkartearen ikastaroak

Eskuz Elkartetik jakinarazi digutenez, datorren urriaren 4an hasiko da altzarien birziklapen eta berritze ikastaroa. Astearte eta ostegun arratsaldetan emango dira klaseak, 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Interesatuek 943 74 08 01 (Mertxe) telefonora deitu dezakete.

### Barreterapia irailaren 18an

2005-2006 ikasturte berriarekin batera Barreterapia saioak martxan jarri dira berriro. Datorren igandean, hilaren 18an, Aubixan izango da barre egiten ikasteko saioa. Interesatuak bertara hurbildu daitezke, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:30etik 19:00etara.

Hasi da Donostiako Zinemaldia.

# Zein aktorerekin pasako zenuke egun bat Donostian?

**IBON LOZANO**
Igeltseroa
27 urte



“Angelina Jolierekin joango nintzateke gustura egun pasa Donostiara. Alde Zaharrean pintxo batzuk jan, trago batzuk hartu eta euskal giroa erakutsiko nioke.”

**MONICA IGLESIAS**
Tailerreko langilea
24 urte



“Julia Robertsekin, aspalditik dut gustuko, eta bere pelikula gehienak ikusita dauzkat. Pintxo batzuk jan eta garagardo batzuk edatera eramango nuke.”

**Mª DOLORES ESPAÑA**
Kamareroa
24 urte



“Julia Robertsekin joango nintzateke, izugarri gustatzen zait aktoresa hori. *La boda de mi mejor amigo* pelikula izan da gehien gustatu zaidan pelikula.”

**IVAN MARRERO**
Ikaslea
13 urte



“Elsa Patakirekin, oso neska polita da, eta gainera ez genuke elkarulertzeko arazorik izango. *Los Serrano* telesailean ikusten nuen, eta asko gustatzen zait.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Izan al duzu opor osteko depresiorik?

**BAI %13**

“Bai, aurten asko kostatu zait laneko erritmora ohitzea, eta ez naiz batere animoso ibili lehen 3 edo 4 egunetan. Gogorra da berriz ere laneko ardurei heltzea eta egunerokoari martxa hartzea.”

**EZ %87**

“Depresiorik ez baina lanerako gogo gutxi bai. Oporrak ondo pasa ditudan seinale? Bertan daude Gabonak eta berauen zain egon behar.”

Datorren asterako.... Irailaren 22a kotxerik gabeko eguna da.
**Imajinatzen al duzu kotxerik gabeko egun bat?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7744** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

## 2005-2006 IKASTURTEA HASI DA

# 2000 ikasle inguru matrikulatu dira Elgoibarko ikastetxeetan

Bukatu dira udako oporrak, eta 2005-2006 ikasturtea martxan da dagoeneko. Aurtengoan, ia 2000 ikasle matrikulatu dira Elgoibarko ikastetxeetan. DBHra arteko mailetan 1177 ikasle daude aurtengoan. Taulako datuetan Institutuko 6 ikasle berezi falta dira.

Esan beharra dago, azken urteotan matrikulazio kopurua maila hauetan mantendu egin dela. Herri Eskola eta Elgoibar Ikastolako matrikulazio kopurua iaztik apur bat igo egin da, eta Pilar Ikastetxekoak behera egin du.

Batxilergoari dagokionez, 31 ikasle matrikulatu dira Elgoibar Ikastolan, eta BH Institutuan 193, lehenengo mailan 118 eta bigarrengoan 75 ikasle.

Bestalde, BH Institutuko Heziketa Zikloetan 215 ikasle matrikulatu dira aurtengo ikasturtean.

| | Elgoibar Ikastola | Herri Eskola/Institutua | Pilar Ikastetxea |
|---|---|---|---|
| HAUR HEZKUNTZA | | | |
| 2 urte | 33 | 27 | - |
| 3 urte | 58 | 36 | - |
| 4 urte | 46 | 36 | 7 |
| 5 urte | 50 | 44 | 5 |
| 1. HEZKUNTZA | | | |
| 1. maila | 27 | 49 | 2 |
| 2. maila | 43 | 38 | 11 |
| 3. maila | 46 | 23 | 7 |
| 4. maila | 29 | 30 | 17 |
| 5. maila | 35 | 27 | 13 |
| 6. maila | 28 | 27 | 16 |
| 2. HEZKUNTZA | | | |
| DBH 1 | 36 | 26 | 20 |
| DBH 2 | 35 | 42 | 21 |
| DBH 3 | 42 | 40 | 15 |
| DBH 4 | 31 | 29 | 24 |
| **GUZTIRA** | **539** | **474** | **158** |

## 253 ikasle matrikulatu dira IMHko Heziketa zikloetan

253 ikaslek ekin zioten astelehenean, irailaren 12an, IMHko Heziketa Zikloen ikasturte berriari.

Lehenengo mailan 132 ikasle matrikulatu dira aurtengoan, eta bigarren mailan 121. IMHtik jakinarazi digutenez, matrikulazio kopurua iazkoaren oso antzerakoa izan da.

Bestalde, ikasleek Muntaiarako joera nabaria dutela azaldu digute, izan ere, iaz martxan jarri zuten ziklo berriak aurten ere harrera oso ona izan du, eta 111 ikasle matrikulatu dira. Gainontzeko zikloei dagokienez, Diseinuan 57 ikaslek eman dute izena eta Fabrikazioak 85 ikaslek.



## [ IKAS KONTUAK ]

### Behin behineko Haur Eskola Pilar Ikastetxean

San Rokeko Haur Eskolako berrikuntza lanak bukatu bitartean, Pilar Ikastetxean kokatuko da behin behineko Haur Eskola. Ikasturte berria, beraz, Pilarreko geletan hasiko dute Haur Eskolako umeek. Azken urteotako jaiotze tasaren gorakadak eraginda, eta emakumearen lan mundurako integrazioaren ondorioz, umeek gero eta lehenago izaten dute haurtzaindegira joateko beharra.

Obra hauen helburu nagusia Haur Eskola handitzea da, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

Obra hauek hiruzpalau hilabete iraungo dute gutxi gora-behera, eta lanak bukatu ahala, San Rokeko eraikinera itzuliko dira.

EGUNEKO ZENTRUA

# Mendaroko Eguneko Zentruko obrak udazken honetan amaituko dira

Dagoeneko hasi dira Mendaroko Eguneko Zentrua martxan jartzeko obrak. Azpilgoeta Auzoko Santakruzkoa Etxean kokatuko da Mendaroko Eguneko Zentrua, eta obrako arduradunek jakinarazi dutenez, aurtengo udazkenean zehar bukatzeko asmoa daukate. Obrak bukatu ahala, Eguneko Zentrua martxan jartzeko lanak hasiko dira, eta ahal bada behintzat urtea amaitu aurretik dena prest edukitzea da helburua.

**565.926 euroko aurrekontua**

Astiaran S.L. enpresa ari da Mendaroko Eguneko Zentruko obrak burutzen, eta proiektu honen aurrekontua 565.926 eurokoa da. Helburua, obrak modu errazean eta ahalik eta epe motzenean bukatzea da.

Mendaroko Eguneko Zentruak hamabi lagunentzako lekua izango du gutxi gora behera. Eraikuntza honek 300m$^2$ko azalera dauka, eta beharren arabera handitzeko aukera ere eskaintzen du.

Honetaz gain, egunez Eguneko Zentrura eramaten diren hainbat nagusi gauez ere zaindu ahal izateko hiru apartamentu egokituko dira, bakoitza bere arduradunarekin.



## Jazz kontzertua Azpilgoetako Elizan

Mendaroko Udalak Kutxaren laguntzaz antolatuta, "Jazzaren abiaburuak" izeneko kontzertua izango da bihar, arratsaldeko 18:00etan Azpilgoetako Elizan. Mac Jeara's Band irakasle taldeek osatutako taldea da, eta Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan eskuratu dituzte beren tituluak. 8 lagunek osatzen dute taldea, eta hauetako batzuk Donostiako Orkestrako eta Banda Sinfonikoko kideak izatez gain, musika irakasleak ere badira.

## Ehiza Xeheko txapelketa

Kilimon Zahar Elkarteak antolatuta, Ehiza Xeheko X. txapelketa bihar, hilak 17, jokatuko da, goizeko 9:00etatik 12:30era Zatzu Mendi inguruan. Parte hartu nahi dutenek Elkartean bertan eman beharko dute izena.

## Yoga

Ikasturte berrirako yoga klaseak prest daude. Egun, ordutegi eta talde desberdinak izango dira aukeran. Interesatuek 943 74 85 93 edo 635 71 55 03 (Idoia) telefonora deitu dezakete.

## Kaleko X. Margo Lehiaketa irailaren 25ean izango da


Egaña

Mendaroko Margo Tailerrak Udalaren laguntzaz antolatuta, datorren irailaren 25ean izango da Kaleko Margo Lehiaketaren X. edizioa. Goiz guztian zehar Mendarorekin zerikusia duen edozer margotu beharko dute partehartzaileek, eta eguerdiko 13:00etatik 14:00etara bitartean udaletxean entregatu beharko dituzte lanak. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du, eta ondorengo biei 300 euroko akzesita emango zaie.

KILI KLIK

## Mikel Tarragualek Haundin jokatuko du beste urtebetez

Mikel Tarragual mendaroarrak laugarren denboraldia beteko du Elgoibarren, baina hirugarren mailan jokatzen duen bigarren denboraldia da aurtengoa. Defentsa mendaroarra Debako Amaikak Bat taldean hasi zen futbolean jokatzen, eta gaur egun Haundiko beteranoetako bat da.





# Inma Diez

Aerobik irakaslea

## «Kirola egitea osasuntsua da, baina bere neurrian»

*Inma Diez, 29 urteko neska eibartarra Mendaroko aerobik irakaslea da. Durango, Eibar eta Ermuan ere aritu izan da klaseak ematen. Astelehen eta asteazkenetan izaten dira klaseak, iluntzeko 20:15ean. Ikastaroa hilabete amaieran hasiko da, beraz, oraindik izena emateko aukera badago.*

**• Aerobik irakaslea zara. Nola hasi zinen lan honetan?**
Dantza egitea oso gustuko nuen eta etxean animatu ninduten aerobikeko monitore titulua ateratzera. Sekula aerobik egin gabe hasi nintzen. 17 urte nituen, eta 18 urte egin arte ezin zidaten titulua eman. Urtebetez jardun nuen ikasten, azterketa gainditu, eta 18 urte egin nituen egun berean eman zidaten titulua. Opari bikaina izan zen.

**• Irakasle bezala, gogoan al duzu zure lehenengo klasea?**
Bai. Uztailean eman zidaten titulua eta irailean hasi nintzen irakasle bezala lanean Elgoibarko Ibai Gimnasioan. Zazpi urtez egon nintzen eta gauza mordoa ikasi nuen.

**• Ba al du arrakastarik aerobikak Mendaron?**
Bai. 10 urte daramatzat bertan klaseak ematen eta ikasle batzuk hasieratik daude nirekin. Udan oporrak hartzen ditugu, eta askok etxera deitzen didate klaseak noiz hasiko diren galdetuz.

**• Mutilak joaten al dira klaseetara?**
Hiru mutil izan ditut, eta bat oso ondo moldatzen zen. Mutil asko lotsatu egiten dira, eta beste batzuk aerobika ez dute kirol bezala hartzen, uste dute oso erraza dela, zerbait gogorragoa nahi izaten dute, baina probatzen duenak ondo izarditzen du.

**• Zein dira aerobikaren onurak?**
Koordinazioa hobetzen da, erritmo kardiobaskularra areagotzen da, gorputza moldeatzen da, fondoa handitzen da... Hankak eta ipurdia lantzen dira gehienbat, eta lurreko ariketekin gainontzeko muskuluak. Kirol oso konpletoa da.

**• Fisikoki ondo prestatuta egotea beharrezkoa al da?**
Ez da beharrezkoa, norberak bere erritmoa markatzen du eta nekatzen bada gelditu egin daiteke. Oinarrizkoa pausu batzuk ikastea da. Hasieran denak egoten dira apur bat galduta, baina hilabetean ikasten da, eta gero koreografia guztiak pausu horiek nahastuz egiten dira. Lehenengo aldian ez da toaila bota behar.

**• Kirola egitea modan al dago?**
Bai, eta jendeak izugarri eskertzen du, askorentzat eguneroko bizimodutik deskonektatzeko modu bakarra da, estresa gainditzeko oso egokia da.

**• "Men sana in corpore sano"?**
Bai, kirola egitea oso ona da, eta gorputzarentzat beharrezkoa, baina bere neurrian eta pasatu gabe. Obsesio bihurtzen denean arriskutsua da gorputzak behar dituen elementu asko galtzen baititu. Kirola egitean ura edatea oso garrantzitsua da. Egunero ordubeteko kirola egitea da egokiena.



**«Egunero ordubeteko kirola egitea da egokiena»**



elkarrizketa...

# Julene Alberdi & Amaia Oñederra

Atxutxiamaikak eta Elgoibarko Izarrak Psikomotrizitate ikastaroa antolatu dute Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Haur Hezkuntzako 2 eta 5 urteko umeei zuzenduta dago eta astean 90 minutuko saioak izango dira urritik apirilera bitartean. Talde mugatuak izango dira eta irailaren 22an amaituko da izena emateko epea. Elgoibarko Izarran eman daiteke izena. Julene Alberdi eta Amaia Oñederra psikomotrizistak izango dira irakasleak. 'Psikomotrizitatea', hitz korapilotsu honen atzean ezkutatzen dena argitu nahi izan dugu biekin.

## "Psikomotrizitate saio batean haurrak azaleratzen dituen gabeziak bideratzea da gure lana"




**Zer da psikomotrizitatea. Zuen hitzez azaltzerik bai?**

Teorikoki ez bada, zer den ez dakien bati azaltzea zaila da, baina modu ulergarri batean esateko; haurraren heldutasunarekin zuzenki lotuta dagoen kontzeptu bat da, eta praktika batzuen bidez ematen da. Haurrak psikomotrizitate saio batean parte hartzen duenean, izan ditzakeen gabezia batzuk agertzen edo azaleratzen dira. Gabezia hauetaz konturatzea litzateke gure lana eta horiek bideratzen laguntzen diegu. Guk ez dugu, ordea, hutsuneak edo gabeziak konpontzeko pautarik ematen, bideratu baizik. Eta ez da terapia bat, prebentziozko metodologia baino.

**Azaldu adibide baten bitartez...**

Haur bat agresiboa edo erasokorra baldin bada, hau da, egun guztia beste haurrei atximurka, haginka egiten edo jotzen pasatzen badu, agresibitate hori zerbaitengatik sortu da. Hutsune bat dauka. Gure lana umeari agresibitate hori beste era batean bideratzen laguntzea izango litzateke. Alegia, beste umeekiko adierazten duen agresibitatea kanalizatu edo bideratzen eta gainditzen laguntzen diogu.



**“Psikomotrizitatea hiru kontzepturekin lotzen da: heldutasun mailarekin, identitatearekin eta gorputz osotasunarekin”**

**Beste adibideren bat?**

Esaterako, haur batek autoestimu falta edo autonomia falta duela ondoriozta dezakegu ariketetatik edo jolasean dabiltzan bitartean ikusitakotik.

**Zein dira ikastaroaren eta psikomotrizitatearen helburuak?**

Psikomotrizitatea hiru kontzepturekin lotzen da: heldutasun mailarekin, identitatearekin eta gorputz osotasunarekin. Heldutasunarekin bere adinari dagokion heldutasun maila lortzea adierazi nahi dugu. Gorputz osotasunak, haurrak bere gorputza ezagutzea, eskaintzen dizkion aukera eta mugimendu guztien jabe egitea esan nahi du. Identitateak, berriz, norbere buruaren identitatearen jakitun izatea.

**Haur guztientzako al da gomendagarria ikastaroa?**

Haur guztiek ez dituzte gabeziak, baina guztiei etor dakieke ondo. Adibidez, autonomia baxua eduki dezakeen ume bati, edo beti amaren ondo-ondoan egon nahi duen ume ‘amazulo’ batentzat egokia izan daiteke. Baita salto bat egiteko edo espaldera batera igotzeko gai ez den haur batentzat ere; baita besteekin erlazionatzeko edo hizkuntza arazoak dituztenentzat ere. Denentzat dator ondo, baina beti daude behar gehiago duten haurrak eta hauekin etekin edo onura gehiago ateratzen da.

**Gurasoek, eta jendeak orohar, ba al dakite zer den psikomotrizitatea?**

Jende askok soinketarekin erlazionatzen du, baina ez dauka zerikusirik. Hori bai, psikomotrizitatean gorputzaren bitartez kanporatzen dira gabeziak.

**Zer metodo jarraitzen duzue?**

Hainbat korronte aztertu ditugu, baina B. Aucouturier-en metodoan oinarritzen gera. Metodo honen berezitasun handiena, psikomotrizitatea zuzendua moduan ulertzen duela da. Psikomotrizitate saio hauek ez dira gidatuak, libreak baizik. Hiru gunetan banatzen dugu lana: gune motrizean, afektiboan eta intelektualean.

**Zergatik dago Haur Hezkuntzako umeei zuzenduta?**

Etapa honek berebiziko garrantzia du pertsona baten bizitzan. Ondoren izango garenaren oinarriak eta zutabeak ezartzen baitira. Hortaz, izan ditzakegun hutsuneak handitzen hasi aurretik geratu eta konpontzeko unerik aproposena da.



**“Jende askok erlazionatu arren, psikomotrizitateak ez dauka soinketarekin zerikusirik”**

# ION GARATE

## TEXAS-EN DOKTORETZA EGITEN ARI DEN FISIKOA

# «Bush-en gobernuak erreakzio motela eta axolagabekeria erakutsi ditu New Orleansen»



*Ion Garatek Fisikako doktoretza egiten dihardu Texaseko Unibertsitatean, Austinen. New Orleansetik nahiko gertu dagoela aprobetxatuz, BARRENerako berriemaile berezi lanak egiteko eskatu diogu eta 'Katrina' urakanak lagatako ondorioen inguruan berba egin dugu berarekin. Honez gain, Austin bizitzeko leku ederra dela aipatu digu Ionek. Kultura eta pentsamendu ezberdinetako jende anitz, musika eta bestelako ekitaldiak noiznahi dituena. Eta ez ei dago desertuan.*

**Nola bizi duzu Katrina urakanak New Orleansen eragin duen hondamena?**

Apur bat urrunetik, Austinetik New Orleansera 9-10 orduko bidea dago autoz. Hala ere, askotan izan dut mintzagai. Ez naiz inoiz izan bertan, baina tokia ezagutzen zutenen arabera oso ederra zen. Batez ere, 'Mardigra' deritzon ospakizunagatik zen ezaguna.

**Iritsi al da Austinera New Orleanseko kalteturik?**

Une honetan 4.000-5.000 errefuxiatu daude Austinen eta 25.000 inguru Houstonen. Konbentzio zentroetan daude lekututa. Hiritar asko jo eta ke ari dira errefuxiatuei lagundu nahian. Askok beren etxeetan ostatu eman diete, uniberstitateak ikasle errefuxiatu asko onartu ditu beren ikasketak eten ez ditzaten, boluntarioak kaltetuen arropak garbitzen ari dira, laguntza medikoa ere etengabea da, eta abar luze bat. Duela gutxi Austineko alkateak herritarrei esan die egun pare batean laguntzarik ez emateko, kudea dezaketena baino gehiago ari baitira jasotzen.

**Bush-en gobernuak krisia behar bezela gestionatu al du?**

Badirudi ezetz; erreakzio motela (egun batzutan egoera kaotikoa izan da, dakizuenez), axolagabekeria (Bush oporretan zegoen hondamendiaren lehen egunetan) eta antzerakoak leporatzen zaizkio alde guztietatik, batez ere, alderdi demokratatik, nola ez.

«Egoera kritikoetan gure baitako onena eta txarrena plazaratzen da»

**Bi egun lehenago zekiten ezbehar hau gertatu zitekeela?**

Bai, ebakuazio agindua emanda zeuden ordurako. Halere, ekaitza iragan osteko lehen uneetan uste zen ekaitza ez zela horren gogorra izan, ez zela horren haize bortitzik altxa. Beharbada horregatik erlaxatu zen giroa. Ordu gutxitara nabarmendu zen, ordea, dikeak kaltetu zirela eta ura etengabe isurtzen ari zirela. Orduan, hemen esaten den bezala, "all the hell broke loose" (infernuko ate guztiak ireki ziren).

**Munduko herrialde aberatsenaz ari gara?**

Hala da, baina jakin nahi nuke kalteak zenbaterainokoak izango liratekeen ekaitz berbera pasako balitz, demagun, Indiatik.

**Zer dio iritzi publikoak?**

Kexua, atsekabea... batzuk diote AEB itxura barregarria ari dela ematen egunotan, beste batzuen iritziz elkar hartzeko unea da, elkarri laguntzeko eta hondatutako lekuak lehenbailehen berreraikitzeko unea.

**Pobreenak izan dira kaltetuenak. AEBtan nabarmena al da txiroen eta aberatsen arteko aldea?**

Dudarik gabe. Austinen berton egunero ikusten ditut kalean bizi diren pertsonak; egunero ikusten dut norbait eskua, eta batzutan gorputz osoa zaborrontzietan sartuta, janari edo bestelako bitxien bila. Kapitalismoaren ikur dira Estatu Batuak; ondorioz, pobre eta aberatsen arteko zuloa ikaragarria da. Euskal Herrian baino dexente handiagoa, nik uste.

**Armak eskuan hartuta defendatzen ditu jendeak bere hondasunak?**

Bai, armen jabetza nahiko normala da hemen, baina baimen bat lortu behar da. Egoera kritikoetan gure baitako onena eta txarrena plazaratzen da; amorrua gainezka edukiz gero eta pistola eskuan...

# ¿Que te aporta el EUSKERA?

### Jose Ignacio Leon

"Euskal Herriko kultura ezagutzeko beharrezkoa den tresna da. Lan harremanetan oso aberasgarria da, batez ere jende aurrean lan egin behar duzunean".





### Marisa Lopez

"Conocer gente en el euskaltegi. Comunicarte con la gente, poder entenderla. Me permite ampliar la eleccion televisiva y ver programas de humor. Hacer o tener clases particulares con los hijos. Terapia de risa en clase. Ampliar conocimientos".

### Rosi Perez

"Satisfacción personal. Ahora que veo que voy entendiendo y que puedo comunicarme despues del esfuerzo que me supone noto una enorme satisfacción personal".





### David Rey

"Nire ilobarekin euskaraz hitz egiteak eta jolasteak asko pozten nau. Etorkizunean nire seme-alabekin euskaraz hitz egiteko aukera izango dut".

## SI TU TAMBIEN CREES QUE MERECE LA PENA, TE ESPERAMOS EN:

aek

**AEK EUSKALTEGIA**
Plaza txikia, 3
Tel. 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net

UDAL EUSKALTEGIAK

**UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa plaza, 2
Tel. 943 74 27 31
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

**Laguntzaileak:**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

UDAL EUSKARA BATZORDEA

AZAROTIK EKAINERA, EUSKARAZ HITZ EGITEKO

## TERTULIAK

Euskara ikasten ari bazara (4. urratsetik gora) edo euskaraz hitz egiteko erraztasuna lortu nahi baduzu, eman izena TERTULIAK egitasmoan parte hartzeko. Euskaldun zahar batekin euskaraz hitz egiteko aukera izango duzu, astean ordubetez.

***Izena emateko joan euskaltegietara edo Elgoibarko Izarrara urriaren 14a baino lehen.***

## ERNESTO VILLARINO ARRAUNLARIA

# «Entrenamendu batera huts egitea arraun lagunekiko errespetu falta da»







*Ernesto Villarino (24 urte) Biologia ikasketak bukatu ostean, Biologia marina espezialitatea egitera joan zen Galiziara (A Coruña) duela bi urte eta Perillo Arraun Taldean hasi zen arraunean.*

**Nolatan hasi zinen arraunean?**

Ez nuen arraunean egiteko batere asmorik, baina Perillo Arraun Taldea etxe ondoan zegoenez, informazio eske sartu nintzen. Nire harridurarako arraunlari beharrean zeuden eta izena eman nuen.

**Talde indartsua al da Perillo?**

Galiziako bostgarren taldea izango da. Tradizio handiko kluba da eta duela 3 urte Kontxako estropadan egotea lortu zuten, baina aurrekontuarekin dituzte arazoak.

**Sekula hartu al zenuen arraun bat eskuetan?**

Keba! Ezer jakin gabe hasi nintzen. Horrelako talde batek esperientziarik gabeko mutila hartzea harrigarria egin zitzaidan, baina nirekin buru belarri jardun eta izugarri ikasi nuen. Teknikarekin ibili nintzen larri. Indarrez ondo nebilen, baina indar hori uretan ipintzen asmatu behar da.

**Galizian aritu al zara konpetizioan?**

Pena hori dut. 26 arraunlari ginen, postu bakoitzeko bi, eta aurreneko momentutik hartu ninduten kontutan baina aurredenboraldiko estropadetan parte hartu eta etxera itzuli behar izan nuen. Azken urtea, berriz, Sizilian pasa dut Erasmusekin. Arraunean jarraitu nuen, baina arraun olinpiko edo banku mugikorrean, ez baitzegoen trainerarik. Sartu nintzen klubak entrenatzaile oso ona zuen eta lemazain gabeko lauko modalitatean Siciliako Eskualdeko Txapelketa irabazi genuen.

**Gustura zaude, hortaz?**

Bai Italian eta bai Galizian lehen egunetik hartu naute eskuak zabalik. Ez naiz batere damutzen arraunean hasi izanaz. Trainerako kideen artean sortzen den giroa paregabea da. Kirol gogorra denez, laguntasun handia dago eta gogorra izan arren, atsegingarria da.

**Kirol gogorra dirudi.**

Kirol fisikoa eta exigentea da, baina buruak zeresan handia du, buruaren kemenak norbere mugak gainditzen lagun dezake. Ni nahiko esplosiboa naiz eta ordubete uretan topera jardun beharrarekin sufritu dut gehien. Behin traineran zaudenean ez du balio ezin duzula esateak, tiratu egin behar da, bestela trainera desorekatzen duzu. Futbolean jokatzen nuenean aldaketa eska nezakeen, baina arraunean ez dago horrelakorik.

**Asko entrenatzen al duzue?**

Jarraikortasun eta konpromiso handia eskatzen duen kirola da. Egunero eta astean zazpi egunetan entrenatu behar da. Huts eginez gero arraun lagunekiko errespetu falta bat da.

**Barrukaldekoa eta arraunean?**

Arraunlaria egin egiten da, ez da jaiotzen. Barrukaldekoa izan arren egin daiteke arraunean. Inork Elgoibarren hasi nahiko balu, argi izan dezala hau. Mutrikuko trainera gertu dago eta zenbat eta gazteago hasi hobe.

[ «Futbolean aldaketa eska nezakeen, arraunean ez dago horrelakorik» ]

2005-2006 DENBORALDIRAKO ESKAINTZA

# 15 kirol jarduera eskaintzen ditu Udal Kirol Patronatuak



Udal Kirol Patronatua dagoeneko hasi da denboraldi berriko kirol eskaintzarekin. Guztira 15 kirol jarduera ezberdin izango ditugu elgoibartarrok aukeran. Berrikuntzen artean, Pilates eta Power Dumbell ikastaroak aipa daitezke. Jadanik 877 lagun hasi dira ikastaro eta jarduera ezberdinetan, aerobika izanik arrakastatsuena 226 ikaslerekin. Spinning-ak ere gero eta herritar gehiago erakartzen du, 185 ikasle hain zuzen ere.

Igeriketa ikastaroetan, haurtxoentzako ikastaroak eta igeriketa eskola barne, 184 lagunek eman dute izena. Jubilatuentzako gimnasia ikastaroan 70 lagun arituko dira, 55 lagun Pilates ikastaroan, Dantza ikastaroetan 51, karatean 31, Wing-tsun arte martzialean 26, aquaerobikean 28, yogan 7 lagunek eman dute izena eta azkenik, Tai-chi delakoan 6 lagun eta Power Dumbell berritzailean 5 lagun arituko dira. Jarduera guzti hauetaz 18 irakasle arduratzen dira.

## Urtiagako haitzulora irteera Leizarpe Taldearekin

Leizarpe Taldeak Urtiagako haitzulora irteera antolatu du. Ekainaren 24an izango da irteera baina izena emateko epea bihar, hilaren 17an, amaitzen da. Hamalau urtetik gorakoei zuzendutako irteera da eta honako telefonora deitu behar da: 666 53 70 88 (Asier). Goizeko 10:00etan irtengo dira elkarteak Santa Klara kalean duen lokal paretik.

## Nesken futbol taldeko afaria

Elgoibarko nesken futbol taldeak afaria egin nahi du irailaren 24an, zapatuan. Noizbait nesken taldeko kamiseta jantzi duten jokalari guztiak daude afarira gonbidatuak. Seinale gisa 30 euro sartu beharko dira Caja Rural-eko 30080171641401096910 kontuan. Informazio gehiago 650224058 telefonora deituz.

## Mintxetako igerilekuak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatak jakinarazten du Mintxetako igerileku irekiak irailaren 18ra arte egongo diela irekita.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA | ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES



graduatu-ondoko ikasketak 2005–2006

masterrak

- Enpresen zuzendaritzako masterra – MBA
  - Zuzendaritza Orokorra
  - Finantza Zuzendaritza
  - Marketing Zuzendaritza
  - Garraio eta Hornikuntza Katearen Kudeaketa
  - Kooperatigintza
  - Berrikuntza eta Ekintzailetasuna
  - Kirol Entitateen kudeaketa eta zuzendaritza
- Bankan eta burtsan masterra (birtuala) – MBB
- ERP enpresa informazio sistemen masterra – MSI

informazioa

Enpresa Zientzien Fakultatea
Oñatiko Campusa
Larraña, 16
20560 Oñati
Tel.: 943 71 80 09

postgrado@eteo.mondragon.edu
www.eteo.mondragon.edu

www.mondragon.edu

MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

# Merkatua

**OHARRA**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

**Langai** Euskal Lan Zerbitzua

- Elgoibarko enpresak **ingeles irakaslea** behar du. Erref. 162005009098
- Arrasateko enpresak **inkestatzailea** behar du. Erref. 162005009191
- Arrasateko enpresak **medikua** behar du. Erref. 162005009224
- Oñatiko enpresak **gerentea** behar du. Erref. 162005007799
- Debako enpresak**garbitzailea** behar du. Erref. 162005008366
- Azpeitiko enpresak **tornurako langilea** behar du. Erref. 162005009083
- Gipuzkoako enpresak **soldadorea** behar du. Erref. 162005009030
- Zumaiako enpresak **galdaragilea** behar du. Erref. 162005008640
- Arrasateko enpresak **erizaina** behar du. Erref. 162005008744

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32 telefonora.

## [ LANA ]

### ESKAERA

- Neska pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interna. ☎ 943 53 15 53
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ 943 74 22 01 (Araceli)
- Mutila edozein lanetarako prest. ☎ 676 623 843
- Neska gaztea lanerako prest: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak... ☎ 630361395/943172896
- Mutil gaztea lanerako prest: igeltseroa eta enfofratzailea. ☎ 630361395/943172896
- Bikotea enpresa edo jangela garbiketarako prest. Esperientzia industria garbiketan. ☎ 669 22 35 27
- Mutila eskaintzen da harategian lan egin edo beste edozein lanetarako. ☎ 615 00 83 46
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ 699 609 190
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ 690701118
- Gizonezkoa edozein lanetarako prest: atezain, igeltsero... ☎ 697 431 326
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaindu, kamarera... ☎ 697 431 326
- Tituludun soldadorea eta eraikuntzan 2. mailako ofiziala den mutila lanerako prest. ☎ 943531745/661225149
- Neska nagusiak edo haurrak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. Erreferentziak eta papelak ditut. ☎ 686 578 228
- Mutila lanerako prest: eraikuntzan, baserrian, nagusiak zaintzen... ☎ 685 73 06 04
- Emakumea garbiketa lanetarako prest: etxeak, elkarteak, portalak... ☎ 639 42 34 93

### ESKAINTZA

- Asteburu eta jaiegunetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da. ☎ 943 74 02 41
- Ileapaintzailea behar da arratsaldez lan egiteko. ☎ 943 74 43 88
- Elgoibarko tabernarako sukalde laguntzailea behar da asteburuetarako. ☎ 943 74 10 12
- Kamareroa behar da. ☎ 615723480
- Kamareroa behar da. ☎ 943741600
- Pertsona bat behar da asteburuetan sukalderako. ☎ 615723480
- Kamareroa behar da barran lan egiteko. ☎ 652778260/652778210
- Ingelesezko irakaslea behar da akademiarako. ☎ 680 37 36 76
- Iturgintzarako langilea behar da. Euskalduna eta gidabaimenarekin. ☎ 650 586 144
- Neska euskalduna behar da lau urteko umea zaintzeko. ☎ 619 18 78 09

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Pisua salgai Pedro Muguruza 8an. Igogailua eta berogailuarekin. ☎ 943 53 10 03
- Pisua salgai Plaentxin. ☎ 943 85 29 99
- Etxea salgai Pedro Muguruzan. ☎ 964491022/677780680

### ALOKAIRUA

- Etxea alokatzen dut Plaza Txikian. Berritua. ☎ 685 72 85 55
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo inguruetan. ☎ 670 814 035
- Etxea alokatzen da Mendaron. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. ☎ 660 042 159
- Pertsona gaztea behar da Gasteizen pisua osatzeko. 220 euro+gastuak. ☎ 609 22 83 83
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 690 701 118
- Bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Elgoibar edo inguruetan. ☎ 658 740 787
- Pisua alokatzen da Torreviejan. Igerilekua, hondartzatik 600 metrora. ☎ 628 584 535
- 5 logelako etxea alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak... Itsasora eta mendira bistak. ☎ 677780680/964491022
- 3 logelako pisua alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak... Igerilekua, mini-golf, toki berdeak... ☎ 677780680/964491022

## [ PARTIKULARRAKK ]

- LH eta 2. ESO bitarteko ikasleei klase partikularrak ematen dizkiet. ☎ 652 71 59 11
- Irakaslea behar da DBH 3. mailako ikasleari partikularrak emateko. ☎ 699 820 820

## [ SALEROSKETAK ]

- 4 gurpileko prenatal kotxesilla, bidaiatzeko maxi-cosi (0-9kg.), eta neskarentzako moises-a salgai. Berriak. Euritarako burbuila opari. 210 euro. ☎ 667 36 82 34
- Play Station 2 salgai. Jokuekin. ☎ 685 75 95 15
- Bikientzako kotxesilla salgai, Inglesina markakoa. (Aulkia, grupo 0, zakuak, burbuilak...) ☎ 636129543
- Kitarra klasikoa behar dut. Ikasten hasi berria naiz. ☎ 605 77 53 57
- Play Station 2arentzat jokuak salgai. 3 pack. ☎ 627 88 92 59/943 74 23 63 (Javi)
- Eritetxeko ohea, gurpildun aulkia eta airezko koltxoia salgai. Egoera onean. ☎ 627 43 23 61
- Kitarra elektrikoa salgai, Jackson Performer eta anplifikadorea. Berriak. 400 euro. ☎ 690 614 486
- Kotxerako JBL etapa salgai, 6 kanale ditu. 10 hilabete, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ 646 56 36 56 (18:00etatik aurrera)

## [ GARAJEAK ]

- Madalako etxeetan garaje itxia alokatzen da. ☎ 620 13 59 58
- Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 27 78
- Garajea alokatzen da Pista Beltzean. ☎ 943 74 33 52
- Leku Ederren 4. solairuan garaje irekia salgai. 21.000 euro. ☎ 660 042 159
- Garaje itxia salgai Madalan. 28 $m^2$ ☎ 646 50 28 66
- Garaje marraduna alokatzen da Santa Ana kalean. ☎ 630 21 12 02
- Garaje itxia trasteroarekin salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 27 78

## [ BESTERIK ]

- San Rokeko zubian haur baten praka eta kamiseta aurkitu ditut poltsa baten barruan. Udaltzaingoan daude.
- Uztailean erlojua galdu nuen. Urre kolorekoa. San Bartolome eta San Frantzisko artean. Balore sentimentala. ☎ 625 70 22 12


**MINTXETA**
110m²-ko lokala salgai, sozietate edo txoko batentzat bikaina. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Insonorizatua eta berogailua.
ARBELOA INMOBILIARIA San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27 / 699 95 30 21





MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

# [ZORIONAK]



Zorionak **Asier!** Bat. bi. hiru eta... LAU urte! geratuko al gera zelebratzeko?



Hilaren 18an 7 urte betetko dituen Ondarruko lehengusuari zorionak. Elgoibarko guztien partez.



Gutxi falta da lau kandela pizteko! Zorionak **Hasier** hiru amama, aitxitxa eta gurasoen partez.



Zorionak **Ana** irailaren 14an 8 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki Aitor eta amatxoren partez.



Zorionak **Aitor** 11 urte egin dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, Zorione Maier, Ainhoa, eta Julenen partez.



Zorionak **Irati** bihar 3 urte egingo dituzulako. Etxekoen eta bereziki ahizpa Alaitzen partez.



Zorionak **Manex Ibabe Sagasta**ri, ongi-etorri mundu hontara eta zorionak ere aita Aitorri eta ama Amaiari.



Zorionak **Sara** zure 2. urtebetetzean. Familiakoen partez.



Zorionak **Pirata** zure 5. urtebetetzean. Muxu potolo-potolo bat etxeko guztion partez.



Zorionak **Aitor, Iker eta Ander** abuztuaren 28an 11 urte egin zenituztelako. Familiakoen partez muxu handi bana.

Zorionak **amama Lolita** irailaren 18an. Ondo pasa zure urtebetetze eguna. Familiakoen eta bereziki, Mikel eta Oihaneren partez.



Zorionak amatxo **Nekane eta Mikeltxori!** Ondo pasa zuen egunak. Oihaneren partez muxu handi bat.



Zorionak **Koro eta Iñigo** zuen urtebetetzean. Familiakoen partez muxu handi bat.



Azkenean iritsi da zuen hilabetea. Zorionak zuen 4. eta 8. urtebetetzean. Guraso, aitxitxa eta amama.

---

**gazte informazioa**

## IKASTAROAK

**ASTIALDIKO BEGIRALEENTZAKO IKASTAROA**

Astialdiko Trakets Eskolak antolatuta. Baldintzak: 18 urte beteta izatea edo ikastaroak iraun artean betetzea eta eskola guztietara joatea. Irailaren 24tik apirilaren 29ra. Izen ematea: irailaren 09tik 20ra. 139,95 euro. Informazioa: 943 449640 edo gazteria@errenteria.net

**ASTIALDIKO ZUZENDARI IZATEKO IKASTAROA**

Errenterian. Baldintzak: 21 urte izatea edo praktikak egin aurretik betetzea, haur eta gazteen astialdiko begirale-titutulua izatea eta Bigarren mailako Hezkuntza edo baliokidea gainditura izatea. Urriaren 1etik urtarrilaren 21era arte. Izen emate: irailaren 9tik 20ra. Balioa: 74,25 euro. Informazioa: 943 449640 edo gazteria@errenteria.net

**ELKARTASUN TAILERRA ETA LANKIDETZA JOKOAK**

Baldintzak: Astialdiko hezitzaileak eta talde-animatzaileak. Lankidetza-jokoetan interesa dutenak. Irailaren 24an (10:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:30etara) eta 25ean (10:00etatik 14:00etara). Tokia: Intered Euskal Herria, Frantzia pasealekua, 8 behea-Donostia. Epea: Irailaren 12tik 21era. Balioa: 30 euro. Informazioa: 943 293847 edo intered@euskalnet.net

## LANA

**ADMINISTRARI ETA ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN LAN POLTSA BERGARAKO UDALETXEAN**

Oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Eskola graduatua, L.H. I edo baliokidea eta euskarako 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak. Epea: irailaren 15a. Informazioa: 943 779100 edo bergara@bergara.net

**DOKUMENTALISTA BERGARAKO UDALERAKO**

Teknikari dokumentalista bat aldi baterako kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Kontratuaren hasierako iraupena 6 hilabetekoa izango da, Urriaren 1etik 2006ko martxoaren 31 arte. Baldintzak: Lizentziatua eta 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea: irailak 15 Informazioa: 943 779100 edo bergara@udal.gipuzkoa.net

**DISNEYLAND PARISERAKO LAN ESKAINTZA**

Baldintzak: kontratuaren hasieran gutxienez 18 urte eta gehienez 30 urte izatea, Europako Esparru Ekonomikoko nazionalitatea izatea eta Frantsesa jakitea. Harremanetarako: 943 440108 edo zure curriculuma bidaliz helbide elektroniko bidez eures-guipuzcoa.morcillo@inem.es. Eskaintzen diren lanpostuak: Park support delakoa, jatetxe-arloa, harrera, salmenta eta animazioa. Epea: irailak 29

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461

Astelehen-astearte/ostegun-ostiral
16:00-19:00

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]



18 igandea BOLINTXO

## [ FARMAZIAK ]

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 16 | Zabaleta | Zabaleta |
| 17 | Etxeberria *(Errosario)* | Etxeberria |
| **18** | **Etxeberria *(Errosario)*** | **Etxeberria** |
| 19 | Ibañez | Ibañez |
| 20 | Bidasolo | Bidasolo |
| 21 | Etxeberria *(Santa Ana)* | Etxeberria |
| 22 | Fernandez | Fernandez |
| 23 | Yudego | Yudego |

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

| **UDALA** | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

| **GARRAIOAK** | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

| **IKASTETXEAK** | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**SIGMA - ARRIAGA**
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ARRIAGA - SIGMA**
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 16 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**
2-6 urte bitarteko haurrei eta gurasoei zuzendutako programa
Plaza Handian
(Euria egingo balu, bertan behera geratuko litzateke)
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

## [ 17 ZAPATUA ]

**18:00 JAZZ KONTZERTUA**
Azpilgoetako elizan (Mendaro)

**9:00 EHIZA XEHEKO TXAPELKETA MENDARON**
Zatzu Mendin
Antolatzailera: Kilimon Zahar Elkartea

## SINOPSIAK

**«Batman Begins»**



## [ 18 DOMEKIA ]

**10:00 BARRETERAPIA SAIOA**
Aubixako baserrian

**12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Herriko Antzokian
Zuzendaria: J.A. Osoro
Kontzertu honetan hil ondorengo omenaldia eskainiko zaio hil berri den Iñaki Beristain jaunari (G.B.)
Egitaraua: "Club Cocherito" (F. Saez); "Marcha Eslava" (Tschaikowsky); "Alma de dios" (J. Serrano); "Ben-Hur" (M. Rozsa) eta "Manbo Jambo" (Perez Prado)

## [ 22 EGUENA ]

**10:00 KOTXERIK GABEKO EGUNA**
Elgoibarko kale nagusietan
Goiz guztian zehar sentsibilizazio kanpaina Arriagako industrialdean
Mugikortasun Astearen barruan
Antolatzaileak: Udala, Debegesaren laguntzarekin

**18:30 TXIRRINDUAK KONPONTZEKO TAILERRA**
Plaza Handian
Mugikortasun Astearen barruan

## [ 23 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**
2-6 urte bitarteko haurrei eta gurasoei zuzendutako programa
Plaza Handian
(Euria egingo balu, bertan behera geratuko litzateke)
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

**18:30 KANPAI JOTZEA AIASTIAKO (SAN MIGEL) AUZOTARREI JAIEN HASIERA ADIERAZIZ**
Gazteen Eguna

**19:00 POTEOA BIZIKLETAN**

**21:30 GAZTE AFARIA**

**24:00 DISKO FESTA**
Murkaikupe frontoian

**02:30 "STREPTEASE"**

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN

**«Batman Begins»**
16, barixakua: 22:15
17, zapatua: 19:30-22:15
18, domekia: 19:30-22:15
19, astelehena: 22:15
**«Omagh» (Zine Kluba)**
22 , eguena: 22:15
**«Semen: una historia de amor»**
23 , barixakua: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«Cinderella Man»**
16, barixakua: 19:30-22:15
17, zapatua: 17:00-19:30-22:15
18, domekia: 17:00-19:30-22:15
19, astelehena: 19:30-22:15
20, martitzena: 19:30-22:15
21, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
**«Obaba»**
16, barixakua: 19:30-22:15
17, zapatua: 17:00-19:30-22:15
18, domekia: 17:00-19:30-22:15
19, astelehena: 19:30-22:15
20, martitzena: 19:30-22:15
21, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

Zuzendaria: Christopher Nolan.
Antzezleak: Christian Bale, Michael Caine
Nola alda dezake mundua gizon batek? Bruce Wayne burutik kendu ezinik dabilen galdera da. Gurasoen irudia ere ezin du burutik kendu, ume zela bere begien aurrean tirokatzen zituztela ikusi baitzuen Gotham-eko kaleetan, bere bizitza betirako aldatu zuen gau ilun hartan. Mendeku grina asetu edo gurasoek herentzian lagatako legatu itzelarekin zer egin? horra Brucen beste zalantza handia. Azkenean isilean alde egin eta munduan zehar bidaiatzea erabakiko du injustiziaren aurka borroka egiteko beharrezko bitartekoak bilatzeko.

## «Omagh» (Z.K.)




Zuzendaria: Pete Travis.
Antzezleak: Gerard McSorley, Michele Forbes
2004. urteko Donostiako Zinemaldian gidoirik onenaren saria irabazi zuen. 'Benetako' Irak bere gain hartu zuen atentatua du hizpide dokumental erako filme honek. Bake prozesu erdian egin zuen eztanda lehergailu batek Irlandako Omagh herrian eta 31 lagun hil ziren. Hildakoen senitartekoek gauzak nola gertatu ziren jakiteko hasiko duten borroka erakusten digu. Gatazkak iraun zuen 30 urtetan katolikoak eta protestanteak elkarrekin arazorik gabe bizi izan ziren Omagh herritxoan.



**1974**. urteko ekainaren 9an ateratako erretratu zahar hau Gelatxo baserriko **Juanita Txurrukak** laga digu. Argazkia San Lorentzoko eliza azpian aterata egongo dela kontatu digu, baina ez zegoen oso seguru, hirukote hau toki askotara joaten baitzen elkarrekin. Esan digutenez, askotan elkartzen ziren bazkariak egin, pilotan jokatu edota erromerietara joateko. Hirurak San Lorentzo Bailarako baserritarrak ziren, eta hirurak lagun handiak gainera. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri diren hiru gizonezko hauek:
Ezkerretik eskumara: **Iñaki Arriola (†) (Gelatxo Errota), Santiago Bollar (†) (Gelatxo) eta Jose Luis Gabilondo (†) (Amuzkategi).**



**ESKERTZA**
2005eko uztailaren 26an, 85 urte zituela hil zen
*Jose Arriola Zubiaurre*ren sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**ESKERTZA**
2005eko irailaren 9an hil zen
*Vicente Calomarde Garijo*ren
emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




HIZKUNTZ
Alemana, Frantsesa, Ingelesa, Italiera eta Txinoa
SOLUZIOAK
IRAILETIK HASITA
2005-2006 KURTSOKO
IKASTAROAK
Maila guztiak
Titulu ofizialak
Esperientzia duten jatorrizko irakasleak
Talde murriztuak
Ikastaroak atzerrian
Multimedia gela
ENPRESA
ITZULPEN ETA
INTERPRETAZIO ZERBITZUAK
Esperientzia zabala duen lan taldea
•Teknikoa (makina-erreminta)
•Komertziala
•Nazioarteko proiektuak
Goi-teknologiaren erabilera
Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
Prezio lehiakorrak
Ikastaro komertzialak: Ingelesa, Frantsesa eta Alemana
INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES
IMH
Azkue Auzoa, 1–P.K.37
E–maila: ils@ils.es
Tel.943 744 040 Faxa: 943 741 654


ASKETA
ERREFORMAK, S.L.
Maxpe, 3 behea - 20820 DEBA
Tel.: 943 19 19 52 - Faxa: 943 19 24 60
E-posta: asketa@telefonica.net
www.asketa-reformas.com
BIOK
DEKORAZIOA
Santa Klara, 26
ELGOIBAR
Tel.: 943 74 15 52
606 43 11 19
606 43 11 20
www.biokdekorazioa.com
biokdekorazioa@euskalnet.net
Espezialistak gara fatxada eta teilatuak errehabilitatzen
Gehienezko kalitatea prezio onenean
Eraikuntza berria
MENDAROn
Valentine-n
Valastic
erabiliz
margotua
10 urteko
bermea
gure lan
guztietan!
Eskatu
aurrekontua
konpromisorik
gabe!
Valentine
Fatxaden linean liderrak



# ELGOIBARKO AIASTIA (SAN MIGEL) AUZOAN

# 2005eko JAIAK

## IRAILAK, 23 - Ostirala
### "GAZTEEN EGUNA"

18:30 Kanpai jotzea auzotarrei jaien hasiera adieraziz.

19:00 POTEOA BIZIKLETAN

21:30 GAZTE AFARIA

24:00 DISKO FESTA

Ondorem 02:30etan "STRIPTEASE"

## IRAILAK, 24 - Larunbata

17:00 EUSKAL HERRIKO ARRAZA LIBREKO ARTZAI TXAKUR TXAPELKETAKO FINALA

Partaideak:

- Jose Antonio Arrillaga (Gipuzkoa) *Lagun* txakurrarekin
- Jose Antonio Arrillaga (Gipuzkoa) *Txuri* txakurrarekin
- Mikel Aizpurua (Gipuzkoa) *Beti* txakurrarekin
- Jose Ramon Orbegozo (Gipuzkoa) *Alai* txakurrarekin
- Felix Irigoien (Nafarroa) *Satur* txakurrarekin
- Carlos Pinedo (Araba) *Xuster* txakurrarekin
- Carlos Pinedo (Araba) *Txiki* txakurrarekin
- Bizkaiko txapelduna
- Bizkaiko txapeldunordea

22:30 HARITZ DANTZA TALDEAren erakustaldia

Ondoren, ERROMERIA LUHARTZ TALDEAREKIN

01:00ak aldera BOLO TXAPELKETA

Sariak: 1. saria: Motoserra
2. saria: 70 euro
3. saria: 50 euro
4. saria: 25 euro
5. saria: 15 euro
6. saria: Ustekabea
Auzoko lehenengoarentzat garaikurra.

## IRAILAK, 25 - Igandea

11:00 MEZA

Ondoren, SORKUNDE eta AINTZANE trikitilariak

17:00 IDI DEMAK

GARRO (Etxebarria)
ARTADIALDE (Berriatua)
ERLETE (Itziar)

Sariak: 1. saria: 750 euro eta garaikurra eta mantak
2. saria: 660 euro eta garaikurra eta mantak
3. saria: 600 euro eta garaikurra eta mantak

## IRAILAK, 29 - Osteguna

11:00 MEZA NAGUSIA

Ondoren, ZIARDA eta MAÑU bertsolariak.

13:00 Auzoko bikoteen arteko XXII. Pelota Txapelketaren azken partidua.

GARDOKI trikitilariak

20:30 AUZOTARREN AFARIA

Ondoren, ERROMERIA GARDOKI taldearekin.



Oharra:

Aparkalekua egongo da. Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen ezbeharretaz arduratuko.

Laguntzailea
Elgoibarko udala